

TORIBIO ETXEBARRIAREN *LEXICON*-i gehigarriak

2000-VI-19

Juan San Martin

Toribio Etxebarriaren “Lexicón del euskera dialectal de Eibar” deritzan lan sakon bezain eredugarria Euskaltzaindiaren *Euskera* agerkarian 1965ean argitaratu zen, X-XI alean. Laster agortu zenez, 1982an bigarren argitalpena izan zuen. Baina hori ere laster agortu zen eta hirugarrenez, lehenago aditz laguntzaileari buruz egina zuen lanarekin batera *Flexiones verbales y Lexicón del euskera dialectal de Eibar* 1998. urtean egitarra eman zuen Eibarko Udalaren Euskara Batzordeak. Lan honen azken orrialdeetan nik 1990ean *Euskera* agerkarian egin nizkion gehigarri batzuk ezarri.

Baina nik bildutako hitz guziak ez zeuden han eta orain gehigarri hura luzapenez eskaini nahi dut. Hala ere, adierazi beharra dut zenbait gaitan egin nituen lanak ere, gehigarri bezala, hor daudela argitaraturik. Adibidez, honako hauek dira: “Eibarren erabiltzen diren burdin langintzako hitz teknikoak” (*Euskera*, III, 1958. 141-158. orr.), “Eibarren teknika gaietan egin dan eboluziñoari buruz” (*Euskera*, IV, 1959, 127-138. orr.), “Perretxiku izenak Eibarren” (*Euskera*, XX, 1974, 317-324. orr.), “Txori izenak Eibarren” (*Euskera*, XXIV, 1979, 271-277. orr. eta “Botanika lexikoa Eibarren” (*Euskera*, XXXV, 1990, 337-344, orr.).

Orain, lehengo haiei jarraituz nator. Hemengo hitz hauetan azentua ere kontutan hartu dut, guretzat gauza bera ez denez, adibidez: **abixaría**, *impulso* eta **abíxaria**, olloeri arraultzagintzarako jartzen zaiena; **básua**, *el vaso* eta **basúa**, *el bosque*; **gáltzia**, *perder*, *pérdida* eta **galtzia**, *calcetín*; **gizónak**, *el hombre* eta **gizonak**, *los hombres*; **miña**, *dolor* eta **miña**, *lengua*, *mingaina* (bi *ii* edo *í* luzearekin); **píntxia** taillerretako errekadista edo ofizio ikaslea eta **pintxia** kolorea daukan gauza. Baina, horrez gainera, bereizketarik gabekoe-tan ere, ematen diogun azentua jarri nahi izan dut, den bezala baliatzeko.

Bestalde, lauhun eta berrogeitamar hitzetik gorako Toribio Etxebarriaren zerrenda honetarako, XVIII. mendean Eibarko Udalak agertu zuen Ordenantza haietarik ere zenbait hautatu dudala. Orduko eibartarrek, herkideek hobeto uler zezaten, bertako hizkerara itzuli baitzuten Pedro Cano Mucientes erregeren korrejidoreak Gipuzkoan hauteskundeetarako jarri zituen Ordenantzak (P. Cano Mucientes zeritzan hura 1754.etik 1758.era bitartean izan zen Gipuzkoako korrejidore).

Ordenantza horien eskuizkribua Toribio Etxebarriak berak eman zion Gregorio Mujikari 1908. urtean eta honek handik bi urtetara argitaratu zuen *Monografía Histórica de la villa de Eibar* (1910) liburuaren eraskinean, 464-467. orrialdeetan.

Badira 1685eko *Kopla zaharrak* ere, Pronbintziako Artxibategian aurkituak eta Antxon Narbaizari esker Eibarko Udalaren Ego ibarrak 1992an argitaratuak. Epaiketa batean ahoz esana idatzira aldatua zenez, bere euskara ez da zuzena eta agertzen diren hitz guziak ezin ditzakegu jatorizat eman.

XIX. mendearen lehen partean, Franzisko Arrate eibartarra izan zen parroko Aginaga auzoko San Migel elizan eta zenbait sermoi eibarreraz idatzirik utzi zituen. Horietako bat, 1992an, adibidetzat argitaratu nuen, Euskaltzaindiak Fr. Luis Villasanteren omenez argitaratu zuen *Iker-6* alearen 435-449. orrialdeetan.

Gaur egun, ahoskeraz, era arruntean ezagutzen ez diren zenbait hitz agertzen zaizkigu beste zerbaiti erantsiak; zalantzarik gabe, gure hirian noizbait erabiliak izan ziren oroitagiri bitxiak ditugu. Esate baterako, **uzta** ez dugu erabiltzen, baina **uzta-pikua** hor dugu Sanjuanak inguruan lehen uztarekin batera heltzen den pikua.

Gauza bera gertatzen zaigu **ortze** (= *firmamento*) hitzarekin, soilik eza-gutu ez, baina gauaz zerua garbi dagoenean **osgarbi** edo **oskarbi** esan ohi dugu eta gorri denean **osgorri** edo **oskorri**; horren arabera aurkitu genitzake, **ostondua**, **horizonte**. **Antzi** ere ez dugu soilik erabiliko, baina bai ordea beste zerbaiti loturik lehena edo aurrekoa adierazteko: **antzina** eta **antzitzika** edo **antxitxika**, erainegun-**antzitik** edo eraiñegun-**antxitik**, *día precedente a anteayer* eta abar.

Beste batzutan, antzez hurbiltzen zaizkionak adierazten digu: **Sukarra**, adibidez, **kalentura** bezala ezagutzen da, baina bada aditzera emateko beste era bitxi bat, **ozberua**; zeren burua bero eta oinak hotz edukitzeaz laster esan ohi dugu **ozberuak** nago eta edozeinek esango: "ozberua txarra da".

Bertako argotean sartzen garelarik etenik gabeko hiztegi bereziarekin aurki gintezke, maiz edo sarri adineko eibartarrek eta ez bestek ulertzeko erara. Horietariko adibide asko jaso zituen T. Etxebarriak, horien artean: **Granujakeria** Eibarren okerkeria dena; aldiz, **granujia** mutiko maitagarria da; hori bezala, **txakursurtzilo** mutil lotsagabea eta **jantxakurra** besteen kontura bizi den pertsona.

Egia esan, Eibarren, txakurrak zerbaitetarako behar dute izan eta **kazaxakurrak** (ehiza-txakurrak) mota askotarikoak dira: **eper-txakur**, *pointer* eta antzekoak, **erbi-txakur**, *sabueso lebrero*, **txinbo-txakur**, *cocker*, **arratoi-txakur**, *ratonero*, **ardi-txakur**, artzaiei artaldea zaintzen laguntzekoak, **atetxakur**, izenak berak dioen bezala, atezaintzarako, antzinakoen *cancerbero* bai-

zik ez da, gaur egun football-jokoan atezainei ere hala deritzaie, eta, besteak beste, **jantxakurra**, beste ezertarako baliorik ez eta etxeetan laguntzarako dituztenak. Hortik dator besteen kontura bizi diren gizonentzat erabiltzen duguna ere.

Hitz batek zentzu bat baino gehiago dituenean, tartean bi barra // jarritz bereizten dut.

Hortik ohar, hizkuntzaren erabileraz bizitzak berez sortzen dituen erak amaigabeak direla. Eder denez hizkuntza bizia plazan, XVI. mendeko Etxepare idazleak opa zuen eran.

Gainerako luzapenik gabe, hona hemen hitzez hitz nire bilduma tipia Toribio Etxebarriaren *Lexicón* lan ederraren osagarritzat:

abadekume, abadeseme: *clérigo*. (XVIII. mendearen erdialdera Eibarren elezkinuetarako agertu ziren Ordenantzetan honako hau dator: “egon della Conttuban Justticia Errejimenthu gusticha esteilla nombrau escribauzatt, *habaderen semeric*”. G. Mujika, *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, 466. orrialdean).

abixária: *impulso, arrancar con impulso*.

abixaria: *imitación de huevo reclamo para incitar a las gallinas en la puesta*. Zeramikaz eginiko arraultzak, azala barniz zuriz zutela.

adimena: *entendimiento*.

agura-máspasia: *viejezuelo enjuto*.

aguro: *pronto, presto*.

aittiaren-batian: *en un santiamén*.

aixa: *papilla*.

aixa-emon: *ponerle afanoso, contentarle o animarle para la competición*.

aixena: *pámpano que crece en forma de espiral entre maleza, en el bosque y también en paredes rocosas*.

aizegórria: *cierzo, viento frío y penetrante procedente del Norte o Noreste*.

aizépe: *sotavento, socaire*.

ajea: *achaque, dolencia, malestar del cuerpo*.

akats: *errar // mella*.

aldez-áurretik: *de antemano*.

aldez-séguru: *premeditado, prevenido* (Eibarko Aginaga auzoan jaso).

alkarrekingo: *en unión, conjuntamente*.

alkotza, aotza: *cascabillo*.

alperra: *vago // antiguo taladro de sobremesa // rodillo de piedra para apisonar, que se usa en agricultura*.

amabi-amabietan: *a las doce en punto*. **Amabi-amabiak:** *doce en punto*.

ámaiñ: *dar suelta, dejar libre, desenfreno*. Hortik dator Amaña lekuizena ere, antzinako ola edo errota garbiketarako kunbua hustutzeko **albatia** zegoelako.

ámaiñ emonda: *a su aire, al azar, desenfrenadamente, libre albedrío*.

- amama:** abuela // también se emplea como interjección con equivalencia a Jauja !
- ametz, ametza:** *quejigo*, su nombre científico *Quercus pyrenaica*. (Toribio Etxebarriak bere *Lexicón*-ean “arce” bezala jaso zuen; baina “arce” **azti-garra** da. Amezabalegi baserria 1498. urtean aipatzen da, G. Mujikak aipaturiko Monografía hartan dakarren egurtzen agirian).
- amia:** en animales *dueño* o *dueña de la covada* o *de rebaño* // (por extensión) *mandamas, tirano*, entre las personas.
- anka:** (sinónimo de **iges, ospa**) *huir, evadir, fugarse*.
- ants:** *hedor, mal olor*. (Toribio Etxebarriak **antz** dakar).
- antz:** *semejanza, parecido*.
- antziña, antxiña:** *antiguamente, antaño*.
- antzitik:** *por delante*. **Erainegun-antzitik:** *día precedente a anteayer, ante-anteayer*.
- antzua:** estéril. (Bereziki, aberentzat erabiltzen da).
- aozabal:** *exagerado, bocazas*.
- apain:** *adornado (a), compuesto (a)*.
- apurra:** migaja // resíduo.
- ar, -dar, -tar:** *sufijo del gentilicio*. Herritarren izena bukaerako letraren arabera aldatzen dugu, adibidez: **bergarar, ermuar, beasaindar, irundar, elgoibartar, eibartar**.
- aratan, aratian:** *nadar de espaldas*.
- ardaundeixa:** *taberna, vinatería*.
- arearri:** *arenisca*. (T. Etxebarriak **are arrixa** dakar).
- argiduna:** *encargado en los asuntos de suministro de la luz eléctrica*.
- argimutilla, krisallua:** *lampara de aceite*. (Bigarren forma hori badakar Toribio Etxebarriak). Eibarko teknika hitzetan agertzen nuen **argi-mutil**, horman jarritako beso artikulatua da, olio edo kandelaz, argia behar den erara edo komeni den aldera jira-bira egiten zaiona.
- ari-arixan:** *al filo de, a punto de, justamente*.
- arjua:** *agusanado, fruto atacado por el gusano*.
- arkua:** *arco // guardamontes de arma*.
- armagiña:** *armero, fabricante de armas*.
- asigurenak:** *crecederas*.
- asta:** *asto emia // silvestre, salvaje*.
- astakirten:** *torpón*, se dice de la persona torpe.
- asta-nafarria:** *varicela, viruela loca*.
- astapikua:** *higo vilvestre* // pertsonentzat **astakirtenaren** ordez ere erabiltzen da.
- asunura, asunen ura:** *infusión de ortigas*.
- aula:** *débil, enclenque*.
- aurten:** *año presente*.
- aurten, aurtena:** *centro, casa situada en el centro*. (Auzo edo zenbait etxe dauden tokietan erdikoari esaten zaio **Aurtena** edo **Aurtenetxe**. Adibi-

dez, Eibarren Arrate-balleko Kutunegieta auzoaren erdian dagoena da Aurtenetxe eta Aginaga auzoan Mundio mendi maldan dauden hiru basetxeak dira Arando-guena, Arando-aurtena eta Arando-barrena. Gure hizkuntzalari bikaina genuen Koldo Mitxelena laster ohartu zen horretaz, eta ikus zer zioen gehigarritz berargitaratu zuen bere *Fonética Histórica Vasca* 1977 liburuaren 480. orrialdean, non uztartzen zuen **aurten** urtearen esanahiarekin).

atzapar, atzamar: *dedo*. (T. Etxebarriak **atzaparra** eta **atzamarra** dakartza, berak ohi duen bezala, bukaerako **a** artikuluaarekin).

aurka: *contra, en contra, enfretamiento*.

arraitxiko: *a horcajadas*.

árra: *palmo, medida de la palma de mano*.

árraka: umeen jolasean **árra** neurritzat dela, gehienetan intxaurrekin egiten da.

arramuska: *refunfuño, rezongando*.

arrara (zirrara): *estremecimiento*.

arrausin: *bostezo*.

ausi, autsi: *quebrantar la osamenta de algún miembro*.

azalgia: *acelga*.

azka: *rasgar*. (T. Etxebarriak **azka eiñ** eta **azkuria** dakartza, baina **azka-rik** ez).

azkapela: *dedil, funda protectora para el dedo cuando se tiene alguna herida*.

azpi: *debaajo*. (T. Etxebarriak **azpixa** bai, baina **azpi-rik** ez dakar).

babalora: *amapola // en sentido figurado también se dice de la persona de poco garbo*.

baba-pintxana: *alubia pinta*.

bagoa: *la echa*.

bago egin: *poner la echa en el juego* (R. M. Azkuek Eibarren jasoa, Euskaltzaindiko artxibategian bere Hiztegiari eskuz egin zizkion oharretan agertzen denez).

baldrás: *destartalado, descuidado en el vestir*. (T. Etxebarriak, **baldresa** dakar).

bapez: *nada*. (T. Etxebarriak **batbez** dakar).

barautsa: *broca*. (T. Etxebarriak **barautza** dakar).

baria: *bazo // limaco*.

barra-barra (onomatopéyico): *abundante // derroche*.

barrena: *parte baja // taller de taladrado y pulimento interior en cañones de armas*.

bart: *anoche, la noche pasada inmediata*.

basamutilla: *montaraz*.

basati: *salvaje // silvestre*.

baskulagiña: *basculero*. Especialidad profesional armera en las escopetas, que consiste en acoplar el mecanismo de la llave al cañón, con su correspondiente ajuste.

basúa: *el bosque*.

básua: *el vaso*.

begixuka (sinónimo de **itxuka** o **itsuka**): juego infantil de *La gallinita ciega*.
belañua: *niebla*.

besape, besopea: *bajo brazo*, pilotari jokoan **besape** jokatzea asko erabilia da.
besina, bensinia: *gasolina*. Haurtzaroan hala ikasi genuen, baina gerra aurretxoan hasi ginen **gasolina** erabiltzen.

berba (hitz): *vocablo, palabra*.

berbaduna: *cumplidor, el que sabe mantener la promesa o la palabra dada*.

berbakizun: *habladuría, motivo de habladuría*.

berbarua: *rumor de voces*.

berbatsua: *hablador, parlanchín*.

berekautan: *consigo mismo, soliloquio, persona que se imbuje en sus pensamientos*. (Equivalente a **berekikoetan**).

berritxu: *parlanchín (a)*.

besamotza: *manco*.

betagaña: *ceja, sobreceja (betula se utiliza indistintamente para ceja y pestaña)*.

bidetxiorra, bidetxiurra: *sendero*. (Guk hala erabili izan dugu, baina Toribio Etxebarriak **bide-txingorra** dakar).

birikatxa, birakatxa: *uñero, inflamación junto a la uña*.

birriña: *harina, harina fina*. (No es salvado como indica T. Etxebarria. Al salvado se le denomina **zaixa**).

biziarena, bizixana, bizixarena: *cáncer* (Beste alderdi batzuetan **minbizia** dena).

brist: *relampagueo*; **brist-brist:** *brillantemente, reluciente*.

bristada: *destello, resplandor, fulgor*.

bristadatsu: *resplandeciente*.

bular bateko anaiak: *hermanos de leche*.

bur-bur, bor-bor: (**irakiñ**-en onomatopeya): *hervir*. (T. Etxebarriak **bro-bro** dakar).

burugiña: *calculador, discurridor*.

burukua, burkua: *almohada*.

buruzbera: *cabizbajo, cabeza abajo // en natación zambullirse de cabeza*.

dana-dala, dala-dirala: *sea como sea*. (XIX. mendean Aginagako San Migelen parroko zen Frantzisko Arrate eibartarrak "Del perdon de las ofensas" zeritzan sermoian dakar **dala-dirala**).

desterrarri, destarri: *piedra de afilar movida a pedal*.

desterrau: *desterrar*. (**desterrebac** XVIII. mendeko Ordenantzetan dator. Ikus G. Mujikaren *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, 465. or.).

diar, diar eiñ: *llamar, llamada*. (T. Etxebarriak **diagarra** dakar).

- dzanga-dzanga:** onomatopéyico que simula el caminar a *grandes zancadas*.
- edan:** *beber*. (T. Etxebarriak **eran** dakar; baina guk **edan** erabili izan dugu).
- edarixa:** *bebida*.
- égoia:** *viento sur*. (Sinónimo de **egoaizia**).
- egosgógorra, egoskorra:** *tozudo, terco*.
- egurtza:** *lugar de saca de leña, ejido*. (Las **egurzas** se documentan para el año 1494 en la *Monografía Histórica de la villa de Eibar* de Gregorio de Mujika, pág. 11).
- elizkoia:** *devoto*.
- elnorra:** *berruga*. (T. Etxebarriak **enorra** dakar. Izan ere, zaharragoengandik horrela entzun izan dugu.).
- elorri, elorrixa:** *espino*.
- emagaldua:** prostituta, ramera.
- cran:** *de modo, de manera*. Adibidez, (**h**)**orren eran**, *de ese modo, de esa manera*.
- érañegun:** *anteayer*.
- erásan:** *esguince, distensión muscular*.
- eritxi:** *opinión, criterio*.
- eritxira, eretxira:** *a tientas, eritxira ibili: andar a tientas*.
- erdilo, erdi-lo:** *dormitando, soñoliento*.
- erdu:** *ven, vente*. (Hitz honen kidekoak dira: **zatoz, etorri zaite** eta **zatoze**; baina **erdu** bereziki maiteminez edo maitasunez erabiltzen da).
- ergela:** *persona no grata // falto de inteligencia*.
- eri:** enfermedad. (Eibarren ez da ezagutzen horrela, baina bai **nafarrixa**, *vi-ruela*, **nafar-eria**-tik datorrena).
- erpin:** *cúspide, cima o cumbre puntiaguda*.
- errefreskua:** *refrigerio, ágape, banquete*.
- errenkóladan:** *en fila, correlativamente, uno tras otro*.
- errenkoladia:** *fila, en correlativa*.
- erriko errentak:** renta municipal. (**erriko errentac** XVIII. m. Ordenantzetan dator. G. Mujika, *Monografía*, 465. or.).
- erriko-seme:** *nativo, ciudadano*. (Esan nahi hori **jator**-en ordeze ere erabiltzen da).
- erroskillia:** *rosquilla*.
- esamesak:** *habladurías*.
- esangaiztoko:** *desobediente*.
- eskaldarrua:** *bermejuela mayor, variante mayor de la bermejuela, eskallu haundia*.
- eskeria:** *maleza, zarzas entrecruzadas de arriba abajo*.
- eskillarape:** *hueco bajo la escalera*.
- eskolatua:** instruido. (Sinónimo de **ikasia**).
- espiritua:** alcohol. (Haurtzaroan horrela ikasi genuen eta gure zaharrek beste-rik ez zuten erabiltzen).
- este-sobrekua:** *apendicitis*.

este-sobria: apéndice.

etena: *hernia*.

etsipena: *desahucio, desesperanza, desahucio médico*.

etsipena emon: *desahuciar*.

etsipendua: *desahuciado, desahuciado por el médico, desesperanzado*.

etzidamu: *el día siguiente de pasado mañana*.

eulimando: *tábano*.

euskarri: *soporte, sostén, apoyo*.

ezetsi: *negativa, negar*.

ezkutuka: *a escondites (juego infantil)*.

ezti-miña: *ansia de dulzura, dulzura*.

eztimiñetan: *dulcemente*.

eztul: *tos*.

ferixia: *feria, merkatua*. (Toribio Etxebarriak ondo dakar, baina Elgoibarren bertan **azoka** da).

fiesta, fiestan, fiestako (jolas, jolaseko): *broma, en bromas*. (Franzisko Arratek XIX. mendean aipatzen zuen **fiestaco**).

firin da faran (firin eta faran): *gandulear, andar sin ton ni son*.

fixt (Onomatopéyico): *instantaneamente, huir al instante, de súbito*.

frailekatillua: *tazón, tazón mayor que el de tamaño común*. (T. Etxebarriak **fraille-katillua** dakar).

frankezia: *sinceridad, generosidad*.

gaberdi-zárrak: *altas horas de la noche*.

gaitza: *enfermedad, síntoma de enfermedad*.

gaixo: *enfermo*.

gaixorik: *enfermado*.

gaixua: *el enfermo*.

galikarak: *enfermedad venérea, sífilis*. (Generalmente *chancro blando*. Debe provenir del mal galáico).

galtzia: *calcetín*.

gáltzia: *pérdida, perder*.

garagarra: *cebada*. (T. Etxebarriak, **garragarra** dakar).

garagarrak: *el revolcar jubiloso de los asnos*.

garagarrak irabazten: *cuando los asnos tratan de mostrar su alegría para que el dueño les permita revolcar libremente*.

garausartzaille: *desporador*. (Antzina izen hori ematen zitzaion fundizioetan burdina moldeetara hustu ondoren gelditzen ziren zuloak betetzen jardutzen ziren langileei).

garrotillo: *garrotillo, difteria*.

gaztaña, gaztañia: *castaña*. (T. Etxebarriak **gastañia** dakar, s-rekin gaur egungo Eibarren ahoskeraz erabiltzen den eran).

gaztañia lokotsa: *cubierta erizada de la castaña*. (T. Etxebarriak **gastaña lokotza** dakar).

giblekua: *hepatitis, mal de hígado, ictericia*. (**gibel**=higado).

gitxienez: *por lo menos*. Bai T. Etxebarriak eta baita F. Arratek hala dakarte.

Gaur egun ere hala erabiltzen da.

gixarra (giarra): *fibra*.

gogaitt: *hastiarse*. (T. Etxebarriak **gobaitt** dakar).

goittibera: *patín especial para bajar cuestras*. Juguete de niños que consiste en un carrito triangular hecho de tablas y con tres ruedas de poco diámetro en cada uno de los ángulos; de manera que disponga de dos ruedas traseras y una delantera con eje articulado incorporado y que se maneja con los pies y sirve para descender o patinar cuesta abajo.

gorantziak: *recuerdos*.

gorri: *rojo / desnudo*.

gorrizka, gorrixka: rojizo.

gose-pasaua: *hambre pasada, debilitamiento o desgana* por no alimentarse a tiempo. (Horregatik Eibarren esan ohi da: “**Gose-pasaua** txarra da”, eta Plaentziar adarjotailleak ordea, zentzuna aldatuz: “**Gose-pasaua** ona da, jan da gero”).

gosexixa: *hambriento*.

gozagaitza: *incomplaciente, inconformable*.

guen, guena: *límite o extremo superior en territorio*. (Beste toki batzuetako **goen, goena** bezala da. Adibidez, oso erabiliak dira: **sologuena, bideguena**, eta abar, aldi berean etxearen kokapena adierazteko **Guenetxe** ere bai, **goikoa**-ren ordez).

guntzurrinak: *riñones*. (T. Etxebarriak **untzurrinak** dakar).

gurena: *nata de la leche*.

gurixa: *rollizo, tierno, gelatinoso*.

gurrutxel: *tapete que servía para cubrir el lecho sepulcral en las parroquias*. Antzina hilobietan jartzen ziren oihalei zeritzaien **gurrutxel**. 1790. urteko lekukoak agertzen digunez. Ikus G. Mujika, *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, liburuararen 122. orrialdean.

gutxi, gitxi: *poco, escaso*.

gutxietsi: *menosprecio, pequeñez; de escasa consideración, falta de consideración*. Nork bere buruari **gutxietsirik**, *acomplejado, complejo de inferioridad*.

ibarra: *ribera, valle*. (Agiri zaharretan eta leku-izenetan agertzen da. “Ibarra de suso” 1493. urtean, G. Mujika, *Monografía*, 190. or. Eta gure mende honetan lekuizenak ditugu: Ibarra-goikoa, Ibarbea, Ibarrekurutz, Ibargain eta abar).

idakorri: *lectura, leer*. (**Idacortten**, XVIII. mendeko Ordenatzetan dator. ikus G. Mujikaren *Monografía...*, 464. or. Baina, gure egunotan **irakorri** arunt erabiltzen dugu).

idi: *buey*. (T. Etxebarriak **irixa** dakar, artikulatzeaz gure ahoskerazko x fonetismoa sartuz).

ifarra: *Norte*.

ifar-aizia: *viento norte, cierzo*.

ifñi (ipiñi): *poner, (ifnita, puesto* hitzaren balioaz dator XVIII. mendeko. Ordenantzetan. Ikus G. Mujika, *Monografía...*, 466. or. Gaur oraindik rnaiz entzuten zaie Eibarko baserriarrei **ifñi**, **fan** edo **foan** eta antzerakoak, **p** eta **j**-ren ordez **f** erabiliz).

igaltsua: *yeso.* (T. Etxebarriak **iraltsua** dakar).

igari: *nadar, natación.*

ijo, irauldu: *moler.*

illargixa, iretargixa: *luna.* (T. Etxebarriak **illargi** dakar).

illetajotzaille: *plañidero (a).*

illetia jo: *plañir.*

infrañua: *infierno.* (T. Etxebarriak, **infarnua** dakar).

infrañuko-Patxi: *diablo, demonio.*

ingirau: *proveer, proporcionar.*

ingirau, inkirau: *agenciar, proporcionarse, proveer.* Sinónimo de **ingirau**.

inkillau: *plagar.*

inkillauta: *plagado.*

intxurra: *nuez o nuez de Adán: Prominencia que forma el cartilago tiroides en la parte anterior del cuello entre los varones adultos.* (**zintzurra** en otras partes).

ipurdiloka, ipúrloka: *persona inestable, culo de mal asiento.*

irabolika: *cemento hidráulico.* (Seguruenik, *hidráulica*-tik dator **irabolika**).

irago: *pasar, transcurrir.* (**yrago**, XVIII. m. Ordenantzetan dator. Ikus G. Mujika, *Monografía...*, 465. or. Eta 1685eko *Kopla zaharrak* direlakoetan ere badator **yragoarren**. Gaur egun, T. Etxebarriak dakarren moduan, **igaro** erabiltzen dugu).

irao: *recalentar.*

iraotu: *recalentarse, revenido en el tratamiento térmico.*

irauli: *volcar.*

iritxi, iritsi: *alcanzar, conseguir.* F. Arratek **idistia** dakar “*dar alcance*” adierazteko.

irutxur: *rincón, ángulo // traicionar.*

irrist (onomatopeya): *resbalar, deslizar.* (T. Etxebarriak, **irritz** dakar).

irristada: *resbalón, deslizamiento.*

irristaka: *resbalándose, deslizándose.*

irristakor: *resbaladizo, propenso a resbalar o deslizar.*

istrumuziñua: *extremaunción.*

itsasontzi, itxasontzi: *navío, barco marino.*

itsulapikua, itxulapikua: *alcancia, hucha.*

itsuka, itxuka (sinónimo de **bégitxuka**): *juego infantil a La gallinita ciega.*

ixo: (en mecánica) *pasar de rosca, deshacer la rosca por el uso.* Seguruenik, **ijo, ixo**-tik etor daiteke, nondik har zitekeen “*rosca molida*”.

ixó !: *isilarazteko, ¡callese!* bezala.

ixotu, iziotu: *encender.* (T. Etxebarriak dakar **ixotu** eta F. Arratek **iciotu**. Azken forma hau antzinatikoa da).

izatez: *ser natural de ...*

izipua: *brocha gruesa de albañilería.*

izpi: *fibra diminuta de hebra, hebra, diminuto.*

iztarlengusua: *primo lejano.*

jai: *fiesta* (Hala dator XVIII. mendeko Ordenantzetan ere).

jaitxi: *ordeñar.* (T. Etxebarriak **jaitxi** dakar).

jantxakur: *perro de lujo.* Por extension, persona parásita que gusta vivir por cuenta ajena.

jaramon, jamon: *hacer caso, atender.*

jaramonik ein ez: *hacer caso omiso.* (Toribio Etxebarriak **jamoniz ein ez** dakar, baina hutsen bat dela uste dut, zeren ikus **kausik b'ez** delakoan adierazpenez dakarren esaldia, non datorren **jamonik b'ez**).

jarixua: *pérdida paulatina, derrame lento; pequeña fuga de agua del grifo.* Normalmente, por asociación, se emplea para otras designaciones que guarden similitud con el derrame descuidado.

jator: *castizo, apuesto.*

jentetza, jentetzia: *gentio, concurrencia de gente.*

jikara: *jícara, tacita.*

jira-bira, jira ta buelta: *dar vueltas.*

jiraka: *girando.*

jirau: *girar, dar vueltas // procurar, conseguir.*

jurudik: *parecerse.* (Gizonezkoentzat hika aritzean, eta zukakoan **dirudi**).

jurudiñ: *parecerse.* (Emakumezkoentzat noka aritzean, eta zukakoan **dirudi**).

jitxa: *facha, aspecto.* (Batez ere fisiko itxuragatik edo egiten dituzten zeñu edo keinuengatik).

kafe-txanua: *colador de café.*

kafesnia: *café con leche.*

kakatsua: *cagón // fastidioso.*

kakutsa: *mierda pura.*

kalder, kalderra: *tacaño.*

kalderkeria: *tacañería.*

kalekume (kaleko ume): *criatura urbana, urbano.* Ciudadano de una población, en oposición al hombre rural.

-kara: (sufijo que designa tonalidad de color). Por ejemplo: **gorrizkara**, rojizo; **orizkara**, amarillento; **zurizkara**, blanquecino; etc.

karaitza: *calcáreo, roca caliza.*

karreju: *pasillo de la vivienda.*

katarra: *gato macho.* En argot burlesco se dice de las personas donjuanes-cas.

katxo: *surdo.* Pelotari ezkertia, gure gurasoek erabiltzen zuten.

kesokemau: *flan.*

kezkatia, kezkatixa: *inquieto, escrupuloso.*

kili-mala (makalik): *indispuesto, débil.*

koipe-gaza: *delicado (a), cursi.*

koipe-gazazko: *persona delicada.*

koipe-lustre: *pringado.*

koipezto: *pringoso.*

koittaua, kotxaua: *desgraciada.* Eibarren esan ohi denez, gizonak, **gizajuak** eta andrak **koittauak.**

kokaldia: *tortículis*

kontzejua: *ayuntamiento.* (T. Etxebarriak **konzejua** dakar).

kopaua: *bocado.*

korapiña: *nudo simple, nudo sencillo.*

korapiztia: *lazada.*

kortejau: *cortejar a las damas o señoritas.*

koska, koxka: *mella // obstáculo.*

koskondu: *desarrollarse físicamente.*

kotoi, kotoia: *algodón.*

kukurruko ezula: *tosferina.*

labakada, labakadia: *horno repleto.*

labakua: *hornada.*

lafiau (mozkortu, en argot local): *emborracharse.* (T. Etxebarriak, **lapiau** dakar).

lamaikua, lameikua: *se decía por una moneda de valor inferior a la de cinco céntimos.* (Viene de **lau maravedikua**, de cuatro maravedies).

lanparra, euri-lanparra: *llovizna fina y pertinaz.*

lasterka, antxixika: *correr, corriendo.*

laupardia: *borrachera, en argot local.*

legez, letz: modo adv. *como, según.* Sinónimo de **bezela.** (En las Ordenanzas de mediados del siglo XVIII aparece **legues.** Véase G. Mujika, *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, pág. 467).

leixua, leiua: *saetera.* (Baserririk gehienetan beheko ukulluan izaten dituzte horrelako leihoak).

leka: *vaina, alubia verde.* Por extensión, la *vaina* de legumbres.

lekukoak: *testigos.*

lekutan: *lejos, lejanía.* (Expresión frecuente, **sekulako lekutan!**, ¡qué lejos! esateko).

lerdena: *esbelto, espigado.*

letz, letxe: *como, según, conforme a.* (Lehenengoa badakar T. Etxebarriak. Dena dela, izatez Bizkai aldeko *legetxe* bera da).

leuna, leguna: *suave.*

liz-papel: *papel de lija.* (T. Etxebarriak **rres-papela** dakar).

iñarra, kiñarra: *brezo.* (Toki-izen bezala eta Eibarko deituretan agertzen da *iñarra.* Baina, gaur egun, **kiñarra** bezala erabiltzen da, T. Etxebarriak *Lexicón*-en jasotzen duen bezala).

lokamusa: *dormir breve, sueño corto.*

lokartu, loak-artu: *dormirse.*

lokiak: *sienes*. (Hitz hau gure amak maiz erabiltzen zuen. Bera izatez, Abadiñokoa zen, baina haren gurasoak ama Otxandiokoa eta aita Arabako Bilerlekoa (Legutiano). Baina hitz hau, gure etxean erabili arren, ez da eza gutzen Eibarren eta Azkueren *Hiztegian* ere ez da aurkitzen).

lokots, lokotsa: *cubierta erizada de la castaña*. (T. Etxebarriak **lokotza** dakar).

lokuluxka: *sueño breve y ligero*.

lordin, lordindu: *ensuciar, manchar, estropear, echar a perder*.

lotsor, lotsorra: *vergonzoso, tímido*.

lupua: *salamandra*.

makal: *débil*.

makalik: *convaleciente*.

manga: *manga*.

mangutsik: *en mangas de camisa*.

mañoso, mañosua: *lloricón // habilidoso*.

marikita: *afeminado*.

mari-mutil: *mari-macho, hombruna*.

marsala: *árbol hermoso y pujante que destaca de su entorno en el bosque*.

marrajo: *astuto, cauto, taímado, de mala intención*.

marrajukeria: *jugar suciamente en algún asunto*.

maaspasa: *pasas de uva*.

maskillu: *moco seco*.

maspildu: *machacar, abollar*.

maspildua: *abollado, abolladura*.

matrallako bat: *una bofetada*. (Francisco Arratek dakar XIX. mendeko eibartarrez egindako sermoietako batean, eta gaur ere hala erabiltzen da).

maxkal: *endeble, flojo*.

me, me-artu: *dependencia, dominar a uno por su debilidad de carácter; como vulgarmente se dice: "tomar a uno por primo"*.

mela-mela: *mojadura, caladura de agua*.

melatua: *empaparse de agua*. (T. Etxebarriak **melau** dakar).

memel: *persona enclenque, de poco fundamento*.

memelo: *insustancial, persona insustancial*.

mendebala: *viento Noroeste, viento lluvioso procedente del Noroeste*.

mendebalde: *Noroeste*.

miestu: *entresaca, entresacar, diseminar*.

miets: *disperso, poco espeso. Bosque con el arbolado diseminado*. En sentido figurativo también se aplica a otras cosas.

mika: *melindre llorón*.

mika, mikia: *ave urraka*. (T. Etxebarriak badakar).

minbera: *dolorido(a)*.

mingel: *quejoso, endeble*.

mingelin: *quejosito (a)*.

mintza: *membrana*.

miña: *dolor, sentir.*

miña, miña: *lengua.*

moldekatxa: *torpón.*

molsua, multsoa: *montón desordenado.* (T. Etxebarriak lehenengoa dakar).

momoliña: *chica insustancial.*

momorrua: *el coco* (en vocabulario infantil).

móskarana: *cáscara verde que envuelve a la nuez.* (T. Etxebarria recoge como **moskorona**).

moskorra: *borrachera.*

moskorra: *petardo.*

móste: interj. **Zer móste !; Zer óste eta zer móste !.**

motrollua: *montón informe.*

murmurrekua, mormorrekua: *entierro de pobre, conducido por un coadjutor y de cuya conducción y funeral nadie responde económicamente.*

musin, musin-egin: *rehusar, rechazar.*

mutxikiña: *corazón de las frutas de pulpa carnosa, núcleo donde arbergan las semillas de las frutas de pulpa carnosa.* (T. Etxebarriak **umetxikina** dakar).

nagixak-botatzen: *desperezándose.*

nafarrixa: *viruela.* (En gran parte de Gipuzkoa se conoce por **baztandarra**).

negarra: *además de lloro o llanto, sirve de forma castiza para expresar lamento.* De manera similar se usa también **illetia jo, plañir**.

nerekautan: *conmigo mismo, en soliloquio.* (Equivalente a **nerekikoetan**).

neska puxiga, neska arrua: *chica orgullosa.*

nordia: *Nor-noroeste.*

nortasuna: *personalidad, casticismo.*

obeidu: *obedecer // rendirse*, cuando se trata de un desafío. (**Obeidu arte**, *hasta rendirse solían ser las reyertas callejeras de nuestra infancia*).

ogibitxartekua: *bocadillo.*

okaranpasa: *pasas de ciruela.*

olua: *avena.*

ollatokixa: *gallinero.*

ondakiña: *residuo.* (T. Etxebarriak **ondokiña** dakar, ondotik: “variante: **ondakiña**” agerraraziz).

ondarrixa: *canto rodado de los ríos, cantos rodados diminutos.*

ondiok: *todavía, aún.* (T. Etxebarriak dakarrenez, baina hitz bera dakar F. Arratek ere, **ondioc**, grafía zaharrean).

onutsa: *bonachón, bonachona; persona extremadamente buena.* (Interj. **Onutsa, kakutsa**, para expresar, *de tan bueno, tonto*).

oraiñengo: *inmediato, lo más próximo en el tiempo.* (XVIII. m. Ordenantzetan dator **orainengo auttua**. Ikus G. Mujikaren *Monografía...*, 467. or.).

oraixa, oreixa: *canalón de desagüe en las cornisas de los tejados.* Al articular **oraixia, oreixia**.

- orbel:** *hojarasca, hojas caídas.* (En oposición a **osto** que sigue manteniéndose en la copa del árbol).
- ordubi-ordubiak:** *las dos en punto.* (**Ordubi-ordubietan:** *a las dos en punto.*)
- ore:** *masa de harina.* (Con el artículo toma la forma **oria**, tal como figura en el *Lexicón* de T. Etxebarria).
- ore:** *nubes en forma de cúmulos.* (Con el artículo, **oria**).
- orekan:** *en equilibrio, en suspensión.* Se aplica generalmente a las aves que se quedan extasiadas en el aire aleteando contra el viento, pero sin cambiar su posición.
- ore-maixa:** *artesa, mesa para la preparación de la masa para hacer pan.*
- orixkara:** *amarillento.*
- orkatilla:** *tobillo.* (En otros lugares se utiliza **txorkatilla**).
- orremen:** *acá y aculla, de con en con.*
- órrenbaten:** *aproximadamente.*
- osgarbi, oskarbi:** *cielo despejado.* **Zeru izarratua dogu, osgarbi dagolako.**
- osgorri, oskorri:** *cielo rojizo, firmamento rojo.*
- ospa:** *escapar, huir.* (Sinónimo de **ihes**).
- óstera:** *viaje o recorrido de ida y vuelta.* (Con acento en la primera vocal, pues de lo contrario, **ostera**, *significa de nuevo*, tal como figura en la última línea de *Kopla zaharrak* de 1685).
- ostia:** *parte trasera.*
- ostiango, ostiantzeko:** *el resto, de lo otro(a), por o para añadidura.*
- ostiantzian, osteruntzian:** *en lo demás, por lo demás.* (XVIII. m. Ordenantzetan dator **osteruncian**. Ikus G. Mujika, *Monografía...*, 466. or.).
- osto, ostro, ostrua:** *hoja de planta.*
- ostondua:** *horizonte.*
- otarra, otarria:** *cesta, Eibarko baserritarrentzat.*
- otarri:** *roca basáltica, ofita.* (Eibarren aski ezaguna da, baina Plazentzian maiz erabiltzen da).
- ots, ots eiñ:** *voz de llamada.*
- ots egin:** *convocar.* (**oz egiten**, XVIII. mendeko Ordenantzetan. Ikus Mujika, *Monografía*, 465.or.).
- otxindu:** *hacer fortuna.*
- otxo-kuarto!:** *¡Qué caray!* (Interj. **Zer móste ta ze otxo-kuarto!**).
- otz:** *frío.*
- ozbero:** *escalofrío.* (**Bai jauna, ozberua txarra da.**)
- ozbera:** *friolera.*
- panpan:** *fanfarronada, afán, afanarse.*
- panparrería:** *fanfarrería.*
- pardúa:** *moteado.*
- parra-parra:** *deslizar patinando.*
- parraparrían:** *el juego de deslizarse patinando.* Generalmente juego de chiquillos que preparan una pendiente arcillosa con agua (en ocasiones orina) para patinar más rápidamente en el tramo preparado al efecto.

- pasmo:** *pus*. (Beste toki batzutan **zorna** bezala ezagutzen dena).
- pasmo-bedarra:** *hierba para extraer pus, murajes*. (Bot. *Anagallis arvensis* y *Arenaria Serpyllifolia* L.).
- pella:** *leche frita*.
- peora:** *zaguán, portal*. (Entre personas mayores **pegora**. Véase en T. Etxebarria).
- perkatxa:** *pizpireta, precoz, avispado/a*.
- pikia:** *pez de artesano en guarnicionería o zapatería // cuesta, pendiente muy inclinada*.
- pikupasa:** *higo seco, pasa de higo*.
- pinporta:** *forínculo, yema, brote del capullo de la flor*.
- pitxia:** *peripuesto // adorno de bisutería*.
- píntxia:** *aprediz de taller*.
- pipa-zotza:** *planta trepadora, enredadera*. Tronco de la planta conocida por **aixena**, *pámpano que crece en forma de espiral entre maleza* o en el bosque, de médula muy porosa. En nuestra niñez lo empleabamos para fumar.
- pipitxia, pepitxia:** *punto de inicio del forínculo del que brota el capullo*.
- pitxadia, pitxaria:** *dejada* en el juego de pelota. (Véase el *Lexicón* de T. Etxebarria).
- porrot:** *quebrar*.
- pot:** *fallar, fallar por extenuación*. (Su variante **poto** se emplea entre bertso-laris).
- potruak:** *testículos*.
- potrosua:** *cojonudo*.
- potrozorri:** *ladilla*.
- potxo, potxo egin:** *meter al hoyo en el juego de canicas*.
- potxor:** *vagina, vulva de hembra*.
- potxoliña:** *vagina*, en sentido afectuoso.
- potxorroskillak:** los de mi edad nunca comprendimos su significado exacto, pero utilizábamos para dar la negativa a un ofrecimiento inaceptable, era utilizado con interjección, **potxorroskiliak!**. Para nosotros el secreto residía en que nunca podíamos dirigir tal interjección a una persona adulta.
- poz-pozik:** *alegremente*.
- pritzixia:** *fiera, animal salvaje*. (T. Etxebarriak **fritzixia** dakar, gaur oraindik Eibarko baserritarrek erabiltzen duten eran).
- rausk !** (Onomatopéyico): *exclamación de esfuerzo o vuelco*.
- saldukeria:** *traición, felonía*.
- sapai, sabai:** *desván*.
- sardaundeixa:** *sidrería*.
- sasiletraua:** *sabiondo*.
- sasimedikua:** *curandero*.

semaikua, xemaikua, semeikua: *moneda de cinco céntimos* (Aunque se haya usado para la moneda de cinco céntimos, su significado viene a ser **sei maravedikua, de seis maravedies**).

semei, xemei: *cinco céntimos*.

sen, sena: *juicio, cordura*.

senalle, seiñale: *señal*. (F. Arratek **cenailliak** dakar).

senean: *juiciosamente, en sano juicio*.

seneratu: *volver a sus cabales*.

senetik atara: *desconcertar, sacar de quicio*. (F. Arrate cita **cenetik**).

senetik urten: *desconcertarse, salirse de juicio*.

seta: *terquedad*.

setati: *terco*.

setatsu: *tercamente, vengativo*.

sits-bola, sisbola: *bola de alcanfor*.

soil, soilla: *puro, exclusivo, sin mezcla alguna*.

sorgor: *extasiado*.

suarua: *seguro de incendios*.

subegorria: *vívora*.

subelandaria: *lagartija*. (T. Etxebarriak **subalindaria** dakar).

su-etena: *tregua*.

sutautsa: *ceniza*.

tajura, taxura: *aspecto*.

taketa: *estaca*.

takian-potian: *frecuentemente, muy a menudo, una y otra vez*. (T. Etxebarriak **takian da potian** dakar).

tarratada (Onomatopéyico): *rotura por desgarrar, en tejido o papel*.

tartakin: *inestable, impaciente, saltarín*. (T. Etxebarriak **tartakariña** dakar).

tati: *toma y daca*.

tenean: *erguido en tensión, estable*.

tengontenian: *en equilibrio, inestable, inseguro*.

tentel: *fatuo*.

tertzio: *término medio, cantidad regular // mucho* (en sentido irónico).

tiki-miki: *tema, temoso, impertinencia*.

tipi-tapa: (onomatopéyico): *simula el caminar*. (Baina haurarentzat edo umearentzat **taka-taka** erabiltzen da).

tira-bira: *regateo, tira y afloja*.

titillak: *mollejas de cordero*.

titirrixa: *impaciente, persona que muy pronto se pone nerviosa por su impaciencia*.

toleskaitza: *difícil de plegar*.

tolostura, tolestura: *pliegue*.

toriatzaillia: *tentador, incordiador*.

tórtolasetan: *juego de las tabas*.

trallan, besoa trallan: *en cabestrillo*.

trangadera: *madera base que hace de yunque para trabajar sobre ella con hacha.* (T. Etxebarriak **tangadera** dakar).

trokatu, orkatilla trokatu: *dislocamiento del tobillo.*

trokotxa: *persona con defecto genérico con dedos morros o cortos en pies y manos, que dificultan la articulación en dichos miembros.* (T. Etxebarriak *Lexicón-ean* Eibarko gaitzizen edo izenorde bezala aipatzen du; baina, nik dakidanez, gaitzizen hori fisikoki **trokotxak** direnentzat soilik erabiltzen da).

trónpetan: *juego de trompas entre los niños.*

trosko: *trozo de material en bruto.* (Sinónimo del **totxo** que se emplea en la industria).

truxalak: *lluvia torrencial.*

tutik: *nada (tutik ez jakitzea, no saber nada de nada; tutik be ez, ni mu).*

txandan-txandan: *por turno correspondiente, por orden correlativo.* Para un ejemplo se dice irónicamente: **Txandan-txandan morokilla.**

txanka makilak, txankame: *patidelgado/a, patilargo/a.*

txánua: *capucha, gorro cónico // colador de café.*

txaplatia: *trozo añadido, trozo de retal añadido.* Por extensión, también se dice de las mujeres que hablan sin fundamento.

txartela: *cédula, tarjeta.* (Véase en G. Mujika, *Monografía Histórica de la villa de Eibar*, en documentos de 1647 donde se cita **charteles** en la pág. 199).

txepel: *pusilánime, cobarde.*

txinga: *argolla // cierta red de pesca que se utiliza atravesando el río de una orilla a la otra.*

txintxorta: *chicharrones, frituras de manteca de cerdo.* Residuo que queda al derretirse la manteca de cerdo.

txirrinbola, txirrinbolia, txirrindolia: *aro, aro del juego infantil.*

txispagiña: *llavero, especialidad profesional de llavero en la armería.*

txistada: *chistar.*

txitxaka: *juego infantil que consiste en cazar a la pata coja, dar caza a la pata coja.*

txitxalapur: *ave de rapina.*

txolota: *acetre, vaso con asa.*

txori-keixa: *cereza silvestre.*

txorokil: *carozo, garajo, zuro. Mazorca de maíz desgranada.*

txuliau, txuliatu: *chulear.*

txúlua: *chulo.*

txulúa: *pequeño agujero.*

txundarra: *divieso, forúnculo.*

txutxumutxu: *cuchicheo.*

txutxumutxuka: *cuchicheando.*

udaguena: *otoño.* (En zona rural de Eibar se utiliza tanto o más que **udaz-kena**).

ugar: *óxido, herrumbre.* (Gipuzkeraz **erdoi**).

ujentu, ujento: *ungüento.*

ukat, ukat egin: *abandono* por agotamiento, *rendirse.* También se emplea como sinónimo de **pot egin.**

úlua: *quejido.* (T. Etxebarriak jartzen duen **ulua, quejido, lamento,** lehen **u** azentuaz da).

ume-zorri: *rapaz, criatura desvergonzada.* Zentzu berean, baina egokiago erabiltzen dira: **lotsagabe** eta **lotsabako.**

upartño: *distribuidor de aguas.* En el conducto de aguas, un pequeño contenedor labrado en piedra y con diversas salidas para repartir las aguas a partes iguales. Aún existe uno en la loma de Santa Cruz, cerca de las ya abandonadas escuelas de barriada. Dichas aguas proceden de un manantial a más de un kilómetro de distancia y las distribuye a los caseríos de Mandiola, Azpiri, Sagarbieta, Azaldegi y Agerre (Agirre), en el término de Eibar.

ur-bitsetan, beste honako aldakuntzekin **ur-gañeko bitsetan** eta **ur-gañekuetan:** *de gozo, pleno de satisfacción, gozo supremo;* pertsona bat bere aukerako giroan pozik dagoenean.

urbuztana: *sanguijuela.*

urduri: *inquieto, nervioso.*

urrian: *cerca.* (Hala dakarte T. Etxebarriak eta F. Arratek, eta gaur egun ere hala erabiltzen da).

urrumada: *gruñido.*

urtetsua: *añejo.*

urteurrena: *aniversario.*

usa: *noval, monte o bosque comunal.* (J. A. Mogel recoge en *Peru Abarka,* edición de 1881, p. 110, “usa edo erri-basuac” y Gregorio Mujika en su *Monografía...*, p. 10. Al respecto véase mi informe a Euskaltzaindia, “*Usa leku-izena eta bere esannahia*”, *Euskera*, XIX, 1974, pp. 267-275).

uskilandria: *persona rara.*

usmau, usmatu: *observar, percibir el rastro.*

ustarrilla: *enero.* (XVIII. m. Ordenantzetan dator: “Provinciaco erri gusttie-tacuac bialdu daichela urtebarriraco ylian, ceina baitta **ustarrillian**”).

uzta-pikua: *breva, higo de comienzo del verano.* (**uzta-pikua** Sanjuanetarako heltzen da).

xaxara: *poco fundamento, poco fuste // ocio.*

xemaikua: (Ikus **semaikua**).

zaixa: *salvado.*

zamaua: *pañó de hilo, pañó de cocina.*

zankapia, zankapiak: *corva, corvas.* (T. Etxebarriak **zankabiak** dakar).

zan-okerra: *trazador acodado* que se utiliza en el damasquinado.

zantiratu: *distensión de un tendón.*

zan-zuzena: *trazador* en el trabajo del damasquinado.

zaparrota: *persona chaparra, regordete.*

- zaplatakua** (Onomatopéyico): *bofetada*.
- zapladia**: *azote, azotaina*.
- zapluiua**: *paliza*.
- zartzaroa, zartzarua**: *época de la vejez*.
- zarrastrajo, zarrastrajua**: *harapiento*.
- zazkar (zakar)**: *bruto*.
- zantzuna**: *sentido común*. (T. Etxebarriak **zenzuna** dakar).
- zertarakua**: *hábil, mañoso, persona muy dispuesta*, **Zertarako gizona da**.
- zetakía**: *mancha o suciedad con costra*.
- zeetu**: *desmenuzar*. *En diminutivo, **xeetu**).
- zelbia**: *impertinente*.
- zelibkeria**: *impertinencia, insidiosidad*.
- zeza, zezia**: *pizarra arcillosa, marga*. Por extensión, *tiza*.
- ziarro mutxikiña**: *colilla*.
- zibiri-zaubia**: *movimiento pendular*.
- ziburua**: *columpio*.
- zirikillote**: *dulce preparado con calabaza cocida con azúcar*. Mermelada de calabaza que en castellano se conoce por *cabello de ángel*.
- zirimildu**: *revolver, mezclar*.
- zirimillotia**: *revoltijo*.
- zirimillua**: *revuelto, mezclado*.
- zirkin**: *escabullir, evitar*.
- zirkin egin**: *evadir, escabullirse, esquivar*.
- zirriborrua**: *borrón y borrador en escritura o dibujo*.
- zitxal (zital)**: *irritante o irritable*.
- zitxaldu (zitaldu)**: *irritar, enconar*. (Lo mismo se emplea para las heridas o para los enfados personales).
- zoixa, zoi**: *tepe, terrón*.
- zoramena**: *júbilo, suceso de locura*.
- zumitz, zumitza**: *tiras de mimbre de cestería*.
- zurkatxa**: *escarmiento*. (Baita ere T. Etxebarriak dakarren erara: *miedo edo temor*).